

## **Arabako Foru Ogasunaren dirubilketa metatua % 12,4 hazi da azaroan aurreko urtearekin alderatuta**

*Dirubilketa metatuak bilakaera ona izan du azaroan, 2.102 milioi euro bildu baitira, hau da, aurreko urtean baino % 12,4 gehiago*

**Gasteiz, 2021eko abenduaren 14a.** Arabako Foru Ogasunaren dirubilketa metatua 2.102 milioi eurokoa izan da azaroan, 2020ko azaroan baino ia 232 milioi euro gehiago; hau da, dirubilketa metatua % 12,4 igo da.

Jarduera ekonomikoaren hobekuntzak eragin du datu positibo hori. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da pandemiak oso presente jarraitzen duela covid-19aren seigarren olatuaren ondorioz.

**ZUZENEKO ZERGAK: 1.031 milioi euro (% 6,9)**

**PFEZa: 809,5 milioi euro (% 7,3)**

Enpleguaren bilakaera onak eragina izan du laneko atxikipenen portaera onean, aurreko urtean bildutakoaren aldean % 3,8 igo baitira, guztira 770 milioiko zenbateko metatuarekin.

Kuota diferentzial garbiak ere oso emaitza positiboa izan du: -1,5 milioi, aurreko urteko -28,2 milioiekin alderatuta. Izan ere, Arabako Ogasunak balantze hobea izan du PFEZaren 2020ko kanpainan aurreko urtearekin alderatuta (2020ko kanpainan -11,2 milioi euroko emaitza garbia izan zuen, eta 2019ko kanpainan, berriz, -34,9 milioikoa).

**SOZIETATEEN GAINENKO ZERGA: 166,9 milioi euro (% 5,1)**

Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzialaren dirubilketa metatua 166 milioi eurokoa da, aurreko urtean erregistratutakoa baino % 5,1 handiagoa. Enpresek ordaindutako zatikako ordainketek kontzeptu hori hobetzea lortu dute.

**ZEHARKAKO ZERGAK: 869,4 milioi euro (+ % 14,3)**

Zeharkako bi zerga nagusiek –BEZa eta hidrokarburoen gaineko zerga– bilakaera ona izan dute, eta horrek ekonomiaren suspertzea berresten du. Zeharkako zerga horien dirubilketa metatua 869,4 milioi eurokoa da, 2020an baino % 14,3 gehiago.

**BEZa: 578,6 milioi euro (% 15,9)**

Zerga horren goranzko joerari eutsi egin zaio, eta horrek jarduera ekonomikoaren normaltasunera pixkanaka itzultzen ari garela adierazten du. BEZaren azaroko dirubilketa metatua 578,6 milioi eurokoa da, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 15,9 gehiago.

**HIDROKARBURUAK: 195,7 milioi euro (% 14,1)**

Zerga horren bilakaerak ere, zeina % 14,1 hazi baitzen azaroan 195,7 milioi euroko dirubilketa egin zelako, lurraldearen jarduera ekonomikoa pixkanaka normaltasunera itzultzen ari dela adierazten du.